

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Eguna: 2019-12-18

Hasiera-ordua: 16:00

Bukaera-ordua: 17:30

Bertaratuak:

Batzordeburua:

Bingen Zupiria Gorostidi jn., Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikarako sailburua

Batzordekideak:

- Miren Dobaran Urrutia and., Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea
- Estibaliz Alkorta Barragan and., Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria
- Joseba Lozano Santos jn., Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria
- Jokin Azkue Arrastoa jn., HABEren zuzendari nagusia eta Zuzendaritza Batzordearen idazkaria
- Miren Garbiñe Mendizabal Mendizabal and., Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari nagusia
- Andres Iñigo Ariztegi jn., Euskaltzaindiaren ordezkaria
- Lurdes Isart Badiola and., HABEko Didaktika zerbitzuko ordezkaria
- Joseba Urriz Goikoetxea jn., Araba eta Bizkaiko udal-euskaltegietako irakasleen ordezkaria
- Joseba Arbelaitz Zumeta jn., Gipuzkoako udal-euskaltegietako irakasleen ordezkaria

Bertaratu ezina adierazi dutenak:

- Garbiñe Doval García and., HAEE-IVAPEko Euskara zuzendariordea
- Lorea Bilbao Ibarra and., Bizkaiko Euskara eta Kultura Departamentuko foru-diputatua
- Lexuri Ugarte Aretxaga and., Arabako Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol foru-diputatuaren ordez.

Aztergaiak

- 1.- 2018-12-20 bilera-akta onartzea.
- 2.- EGAREN kudeaketa eskualdatzea.
- 3.- Egiatzatze gintza eta ikasleei zuzendutako dirulaguntzak bideratzeko gidalerroen azalpena.
- 4.- Azterketa-lan berria burutzea: helduen euskalduntzearen eskaintza eta eskaeraren azterketa egin, euskaltegien mapa egituratu eta euskaltegien etorkizunerako eskaintza zehaztu.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

5.- HABEren 2020ko aurrekontuak

- 5.1.- Sarrerak.
- 5.2.- Gastuak.
- 5.3.- Aurrekontuen memoria.
- 5.4.- Erakundearen memoria.

6.- HABEren Berdintasun Plana

- 6.1.- Berdintasunaren inguruko diagnostikoa.
- 6.2.- Berdintasunerako plana.

7.- Euskaltegien jarduera zenbakitan.

8.- Galde-erreguak.

ESANAK ETA ERABAKIAK

1.- 2018-12-20 bilera-akta onartzea.

Joseba Urrizek eskatu du egokitu dadila berak azaldutako adierazpenaren idazkera 6. puntuaren bederatzigarren paragrafoan, ondoren zehazten denaren arabera:

“adierazi du euskaltegiak birdefinitu beharra dagoela. Bere ustez, euskaltegien lana egiaztatze gintzatik harantzago doa eta, erabilera sustatuko bada, gizarte-eragile ezinbestekoak dira. Erabilera sustatzeko lan horretan euskaltegien funtzio berriak definitu beharko lirateke”.

Egokitzapen horrekin akta onartuta gelditu da.

2.- EGAREN kudeaketa eskualdatzea.

Bingen Zupiria Gorostidi batzordeburu jaunak bigarren puntu honen aurkezpena egin du, azalduz, oro har, nola antolatuko diren aurrerantzean helduen euskalduntzearen arloko eskumenak eta eginkizunak, eta zehaztu du Hizkuntza Politika Sailburuordetzak hartuko dituela bere gain Euskararen irakaskuntza eta egiaztatze gintza alorretan eginkizun gehienak, Hizkuntza-Eskola Ofizialetakoak izan ezik.

Ondoren Jokin Azkuek, HABEren zuzendari nagusiak, hartu du hitza, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailean eginkizun horiek HABEren egituran erantsiko direla zehazteko, eta Aholkularitza juridikoek orain arte egin dituzten oharrak komentatzeko, HABEren arau organikoetan aldaketak ekarriko dituelako. Aldi berean, azaldu du, Europako Erreferentzia Markoa dela eta, EGA ziurtagiria C1 ziurtagiria izatera pasatuko dela, eta EGAREN inguruan gauzatzen ziren egiaztatze gintzaren alorreko lanak, orain arte Hezkuntza Sailean burutzen zirenak, HABEren integratuko direla, lehenik hiru hilabetez, urritik urtarrilaren 25a arte, EGA orain arte arautzen

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

zuen araudiaren arabera kudeatuz, eta epe hori igaro ondoren, Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumean zedarrituriko C1 mailari egokitutako xedapenei eutsiko zaiela kudeaketa gauzatzeko.

Aldaketa horrek aurten izan duen eraginaren aldetik, adierazi du 5.000 lagun baino gehiago aurkeztu direla, aurreikusitakoak baino 700-800 gehiago, azterketari asko bi deialdietara aurkeztu direlako, EGARA eta C1era, baina hurrengo deialdia, udaberrian egiten dena, C1 maila egiaztatzeko deialdia izango dela argitu du.

3.- Egiaztatze gintza eta ikasleei zuzendutako dirulaguntzak bideratzeko gidalerroen azalpena.

Batzordeburuak bide eman dio 3. puntuari eta, jarraian, HABEren zuzendari nagusiak hartu du berriro hitza, egiaztatze gintza eta ikasleei zuzendutako dirulaguntzak bideratzeko landu diren gidalerroak azaltzeko, zehaztuz, euskaltegi jakin batzuen proposamenetik abiatuta, guztiekin partekatu direla gidalerro hauek, eta oraindik ere gehiago garatu beharko direla:

- Bi prozesu bereizten dira: batetik, egiaztatze gintza, eta, bestetik, ikasleen matrikularen doakotasuna.
- Batetik, A1-B2 maileri dagokienez, ebaluazio-prozesua euskaltegiek egingo dute HEOCaren arabera, eta dirulaguntzen bitartez doakoa izango da maila horiek lortzea ikasleentzat, betiere, zenbait baldintza betez. C1-C2 mailentzako kreditu txikia aurreikusten da, eta ez dago lehentasunen artean doakotasun hori ezartzea legegaldi-programan; halere, krediturik badago, dirulaguntza-politika egongo da.
- Bestalde, dirulaguntza behin emango da maila gainditzeagatik; ez da bi edo hiru aldiz emango.
Bestetik, diruz zer lagundu behar den eztabaidarako gaia da. Hau da xehetu behar den puntu horietako bat, eta ez dago adostasunik, ez HABE eta euskaltegien artean, ez eta euskaltegien beren artean ere. Egun, matrikularen ordainketa doan da, dirulaguntzen bidez, ikasleak maila lortzen baldin badu. Halere, gerta liteke ikasle batek mailaren bat egiaztatzea, A2 maila adibidez, ikas-prozesuan aurrera egin duelako, nahiz eta ikastaro osoa oraindik amaitua ez izan. Euskaltegi batzuek maila gainditu arteko tartea laguntzea proposatzen dute, ez gehiago. Horrek, ordea, kudeaketa arazoak sortzen ditu, HABE ez dituelako bere aplikatiboak prestatuak horretarako eta euskaltegiek ere datuak ondo sartu beharko lituzketelako, kontrastatu eta jarraipena egin ahal izateko. Beraz, bi aukeren artean bat erabaki beharko da.
- Egiaztatze gintzari dagokionez, A1 mailatik C2 mailara bitarteko egiaztapen guztiak Eusko Jaurlaritzak emango ditu, Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren bitartez.
- A1-A2 mailen ebaluazioak euskaltegiek egingo dituzte eta ebidentziak gorde, HABEren irizpideei jarraituz eta euskaltegi bakoitzak onartu duen curriculum-proiektuan aurreikusitako ebaluazioa kontuan hartuta.
- B1-C2 mailetan, azterketak era mistoan egingo dira: ahozko eta idatzizko ulermena euskaltegietan egingo dira, bertan gordeko dira ebidentziak, eta euskaltegiak esango die

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

ikasleei zein atal gainditu duten; idatzizkoa eta mintzamenezkoa kanpo-ebaluazioaren bidez egingo dira.

Erantsi du gutxieneko akordio hau urrian burutu zela eta, 2020an landu eta gero, 2021ean martxan jartzeko asmoa dagoela, eta horretarako, gaitasun-mailen egiaztatze gintzarako Agindua aldatu beharko dela, zehaztuz sailburuak dagoeneko sinatu duela aldaketari bide ematen dion Agindua, 2021eko martxoan onartzeko asmoarekin; hala, 2020an ere urte horretako dirulaguntzen deialdia egingo da orain arte bezala, eta 2021eko dirulaguntzen deialdirako sistema berria hartuko da kontuan. Horretarako, urtarrilean Bitariko Batzordea bilduko da eta egiaztatze-aginduen proiektua eta dirulaguntzen deialdia burutzeko irizpideak partekatuko dira.

Jarraian, Joseba Urriz jaunak hartu du hitza, orain arte aipatutakoaz gain, beste eztabaida batzuk badirela azaltzeko. Adierazi du aldea dagoela euskaltegi publiko eta pribatuen artean, ez delako elkarrizketarik bideratzen beren artean eta, ondorioz, desadostasunak azaltzen direla. HABEren zuzendari nagusiak baieztatu du pribatuekin adostasuna badagoela, eta publikoekin, berriz, ez guztiekin, batzuekin adostasuna dagoen arren. Batzuetan handienen arrazoiak hartzen direla kontuan dio, eta aldiz, txikien arrazoiak bazterrean uzten direla; baieztatzen du, baita ere, askotan udal euskaltegiak galtzaile ateratzen direla. Hala ere, agertzen du adostasun zabalak lortu direla landutako dokumentuan, nahiz eta erabakiak aho batez hartzea ezinezkoa den askotan.

4.- Azterketa-lan berria burutzea: helduen euskalduntzearen eskaintza eta eskaeraren azterketa egin, euskaltegien mapa egituratu eta euskaltegien etorkizunerako eskaintza zehaztu.

Batzordeburuak laugarren puntuaren aurkezpena egin ondoren, HABEren zuzendari nagusiak jarraitu du aurkezpenean aipatutakoa garatzen:

- Batetik, Euskadiko Udal Legeak, xedapen gehigarri batean, aurreikusten du berriki egin behar dela udal euskaltegien finantzazioa; ondorioz, EUDELekin adostu da udal euskaltegien diagnostikoa eta etorkizunari begirako azterketa egitea, beren egungo egoera aztertuz eta etorkizuneko euskalduntze-eskaintza publikoaren nolakoa zedarrituz, berariazko kontratazio-espeditente baten bitartez.
- Bestalde, Eusko Legebiltzarrean legez besteko proposamena egin zen, euskaltegien eskaera-eskaintzaren mapa ikusi (eskaera eta eskaintza) eta azken hamar urteetako emaitzen balorazioa egiteko.
- Gainera, euskaltegi guztien (publikoak eta pribatuak) diagnostikoa eta aurrera begirako estrategiak eta proposamenak jaso nahi dira. Horren barruan, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak aztertuz, azterketa hori funtsezkoa baita Gobernuak irizpideak izan ditzan finantzaziora buruz erabakitzerakoan.
- Beraz, aurreko bi puntu horietan aipatutakoa garatzeko, beste kontratazio-espeditente bat izapidetu da, bi helbururekin: 1.- Euskaltegien eta autoikaskuntzarako zentroen zein Hizkuntza Eskola Ofizialen egoeraren eta 2009/2010 ikasturtetik gaur arteko emaitzen azterketa-balorazioa egitea, eta 2.- Osagarritasunaren irizpidean oinarrituta, euskaltegi-

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

sareen hedadura edo mapa egitea, gaur egungo ezaugarriak eta egon litezkeen gabeziei aurre egiteko neurriak proposatuz.

Lizitatu diren bi kontratuei esker, azterketa kualitatibo eta kuantitatiboak burutuko direla dio:

- Azterketa kualitatiboan artean, helduen euskalduntzearekin eta alfabetatzearekin zuzenean zerikusirik ez duten eragileekin egindako elkarrizketak aipatu ditu (hamabi-hamabost bat eragilerekin); eta, bestalde, euskaltegien kudeatzaileekin egindako elkarrizketak (dagoeneko bilera bat egin da eta beste bat dago aurreikusita) eta euskaltegi-tako ikasleei egindako galdera-sorta (lehenengo urtean matrikulatutako 35.000 mila ikasleetatik 30.000ri bidali zitzaizen inkesta eta 6.000 ikaslek erantzun dute, beraz nahiko fidagarria izango da bertatik aterako den emaitza).
- azterketa kuantitatiboari dagokionez, bere barruan sartu dira bai esparru akademikoa (euskaltegien ikastaroak, mailak, baja-tasak,...), bai eta azterketa ekonomikoa ere, HABEk dituen datuak baliatuz; hau da, dirulaguntzen zuriketen datuak, etorkizunean zein finantzazio-eredu egon daitekeen aztertzeko.

Gaiari amaiera ematen dio azalduz momentu honetan fase horretan dagoela HABE, alegia, azterketa kuantitatibo eta kualitatibo hori gauzatzen, LKS enpresarekin, kontratuen esleipendun gisa, eta plangintzaren hurrengo urratsak zehaztuz:

- Urtarrilean lehen emaitzak izatea espero da.
- Lan guztia martxorako izatea aurreikusita zegoen, sei hilabeteko epean gauzatzeko esleitu ziren baitziren kontratuok (bat uztailean eta bestea irailean esleitu zen), baina baliteke lanak luzatzea, lan mardula baita esleitutakoa.
- Euskal-tegi publiko eta pribatuei aurkeztu zitzaizen proiektua, eta urrats guztien berri emango zaie Udal euskaltegiei, haiek eskatu moduan, horretarako aurreikusita dauden bileren bitartez (lehen bilera egin da dagoeneko).

5.- HABEren 2020ko aurrekontuak

5.1. eta 5.2. 2020ko HABEren aurrekontuetako gastuak eta sarrerak.

HABEren zuzendariak aurrekontu-proiektua azaldu du, proiektua aurrera aterako delakoan, itxaropentsu. Luzatutako agirien artean informazioaren laburpena dago, Administrazioaren aurrekontuen diseinuarekin ohituta ez dagoenarentzat zaila delako aurrekontuak ulertzea.

Nabarmendu ditu gastuaren aldeko igoera hauek:

- 2. Kapituluari funtzionamendu gastuen igoera nabarmena dago, 300.000 eurotik 400.000 eurora bitarteko igoera, C1 mailaren kudeaketatik eratorritako gastua hain zuzen, batez ere, lokalen alokairuak eta aztertzaileen dietek sortua.
- 4. Kapituluari, berriz, dirulaguntzen igoerak:
 - o Udal euskaltegiei dagokienez, langileen gastuaren igoera dago aurreikusita, betiere Estatuak eta Eusko Jaurlaritzak jarritako mugaren barruan.
 - o Euskal-tegi pribatuen kasuan, berriz, %3 ko igoera aurreikusten da.
 - o Ikasleei zuzendutako dirulaguntzei dagokienez, aurten, ikasleen matrikularen doakotasuna dela eta, 2.450.000 eurotik 3.150.000 eurora igo da gastu hori; dotazio horren bitartez doakotasuna lortzea aurreikusten da.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Diru-sarreraren aldetik, honako hauek nabarmendu ditu:

- Udaberriko C1 mailako deialdiak eragingo dituen diru-sarreraren igoera.
- Hezkuntza sailarekin HABEk duen hitzarmenetik eratorritako jardueren igoera, eta ondoriozko diru-sarreraren igoera, 400.000 eurotik 700.000 eurora bitarteko igoera. Izan ere, sare publikoan irakasle gehiagok omen dute euskalduntzeko asmoa.
- Igoera potoloena Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarena da, % 6,6ko igoera, aurre egin behar baitzaio euskaltegien finantzazioari eta ikasleen matrikularen doakotasunari. Guztira % 6ko igoera dago aurrekontuetan, aurreko urtearekin alderatuta.

5.3. 2020ko aurrekontuen memoria.

Aurrekontuen memorian islatzen diren ohiko jarduerak azpimarratu ditu Jokin Azkuek: materialgintza, irakasleen prestakuntza, curriculumaren garapena, eta egiaztatze gintza eta ebaluazioa.

Materialgintzari buruz, aipatu du inprentan dagoela jadanik B2 mailarako kontratatu diren langaien lehen zatia (B.2.1), urtarrilaren 20an argitaratzeko, eta urtearen bukaerarako argitaratuko direla bigarren zatikoak, B.2.2. Halaber, adierazi du jardun biko ikastereduan ikasteko den B1 mailako 'Bagoaz' ikasmaterialaren balidazioa eta edizioa eginga dagoela dagoeneko.

Prestakuntzaren arloan, azaldu du HABEk zorretan duela joan den urtetik irakasleen prestakuntzari buruzko Agindua onartzea, eta abenduaren 30ean argitaratu behar bazen ere, atzeratu egin dela IVAPekin izandako gorabeherak konpondu diren arte. Izan ere, HABEren ustez, irakasleen euskalduntzearen formazioa edo prestakuntza HABEri dagokio, udal euskaltegietako irakasleak barne, baina azken hauek herri-langileak direnez, uler daiteke horien prestakuntzaren ardura IVAPi dagokiola. Puntu jakin honetan adierazi du talka egiten dutela bi erakunde autonomiadunek, eta nola jokatu adostu dutela, prozedura batzuk ezarritik, lehendik zeuden prozedurak finduta eta hobetuta. Adostasun horren ondorioz, dokumentu batean jaso eta onartu beharreko Agindua sinatu duela sailburuak dagoeneko, aldeko txosten guztiak jaso ondoren.

Azpimarratu du, baita ere, aurten berdintasun teknikariaren plaza bete dela HABEren, legez 2009tik onartua baitzegoen erakunde autonomiadunek plaza hori sortzearen beharra, eta Berdintasun diagnostikoa eta plana egin direla, hain zuzen ere, teknikariak berak, gaitzerrendaren hurrengo puntua mahaigaineratzerakoan, azalduko dituenak.

Bestalde, abian jarri nahi den ikerketa baten berri eman du Jokin Azkuek, lan horren helburua azalduz: alderatu egin nahi dira hainbat hizkuntzaren ezagutza-maila ebaluatzeko irizpideen arteko berdintasunak eta ezberdintasunak, ikusteko hizkuntza batetik bestera dauden ezberdintasunak jakintza-maila ebaluatzerakoan. Konparatuko dira Espainiera, Euskara, Katalanera, Frantsesera, Ingelera. Konparatu nahi dira, halaber, ebaluazio-irizpideak hartuta, hizkuntza batetik bestera dauden aldeak. Zenbait aditurekin hitz egin da honetaz, askok esan dute ez dutela bere burua gai ikusten lan hori egiteko; beste batzuk, berriz, adierazi dute lan hori egiteko bakarrik irizpide objektiboak erabili daitezkeela (denborak, testuen luzerak, ...), eta ez direla hortik aurrerarako lanarekin ausartzen. Ikerketa-lan hori aurrera eramateko pertsonen

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

bila dabilela HABE, gaineratu du zuzendariak, 2020an hausnarketa-prozesua abian jartzeko asmoz.

Bingen Zupiria jaunak hartu du hitza, galdetzeko ea kontuan hartuko den zein den ama-hizkuntza ikerketa hori gauzatzerakoan. HABEren zuzendariak erantzun dio aldagai hori sartua dagoela, baina aitortu du ez dela erreza ikerketaren ikuspegia edo ikuspuntua hartzea, eta ildo horretatik lanean ari dela HABE.

Joseba Urriz jaunak galdetu du zein den ikerketaren helburua eta zein den hasierako hipotesia.

Hizkuntza Politikako sailburuorde Miren Dobaran andreak hartu du hitza galdera horri erantzuteko, esanez zein egoeratan gauden jakitea dela ikerketaren helburua, sekula ez baita egin halako hausnarketarik. Ohitura dagoela, erantsi du, askotan hizkuntzen ezagutza-mailak parekatzeko, adibidez, Ingelesaren First maila eta Euskararen B2 maila, baina gizartearen bilakaera eta hiztunen kopurua ikusita, merezi duela ikerketa hori egitea, euskalkiak ere kontuan hartuta. Izan ere, hizkuntzen egiaztatze-mailen arteko parekotasunaren arabera funtzionatzen dugun arren, ez dakigula, dio, benetan parekoa den alderatzen ari garena, askoren esanetan ez baita berdina. Gaineratzen du beste hizkuntzak egiaztatzeko probak ez direla berdinak izaten natiboentzat edo atzerritarrentzat, esate baterako, First titulua eskuratzeko, eta bere ustez, ez dutela jarraitzen duela hogeita bost urteko azterketak erabiltzen, bilakaera bat izan delako eta hizkuntzak ere egokitu egiten direlako.

Batzordeburuak gogoeta honen ikuspegi orokorra nabarmendu du, azpimarratuz ez dagokiola bakarrik helduen euskalduntze-prozesuari, bigarren hezkuntzan, hirugarren hezkuntzan eta unibertsitate mailan egiaztatzen diren mailetan ere gertatzen baita egoera hori. Argazki orokorra beharko genukeela dio, maila bakoitzean zer den egiaztatzen dena zehaztuz.

Miren Dobaran andreak jarraitu du azalduz Hezkuntzaren alorrean antzeko gogoeta egin dutela, ikasleen aldetik bilakaera nabarmena gauzatu delako, ingurune soziolinguistikoa ez delako berdina, ezta umeak ere; gutxiago irakurtzen dute eta idazlanak egitea gehiago kostatzen zaie. Beraz, aztertu dute idazteko gaiak egokiak diren, edo helduak gai diren horiei aurre egiteko ohiko baldintzetan, eta konturatu dira aldaketak datozela. Gaineratu du horrekin ez duela esan nahi maila jaitsi behar denik, beste hizkuntza batzuetan bilakaera zein izan den hausnartu baizik.

Bingen Zupiriaren aburuz, euskalduntzearen esparruan ez da hausnarketarik egin, eta era automatiko batean ari gara aztertzen oso ezberdinak diren ikasleak. Esate baterako, ez dira berdinak hogeitaz urteko edo berrogeitaz urteko ikasleak, adinaren eta heldutasunaren aldetik.

Ondoren, Joseba Urriz jaunak hartu du hitza. Bere iritziz, Europako Markoa garatua dagoen moduak badu eragina bigarren hizkuntzak ebaluatzerakoan. Adibidez, Cervantes Institutuak atzerritarrekin bakarrik egiten du lan; beraz, ez du Euskararen ebaluazioak dituen arazoekin jardun behar. Euskararen maila ebaluatzerakoan, berriz, euskara lehen hizkuntzatzat zein bigarren hizkuntzatzat dutenak aurkezten dira azterketetara; beraz, ezinbestekoa da maila gainditzeko langa non jartzen den aztertzea, alegia, zein hartzen den baliozkotzat, euskaldun zaharraren langa edo euskaldun berriarena. Atzerriko hizkuntzekin ez dagoela arazo hori dio, beti jartzen baita langa hori bigarren hizkuntza dutenen pare. Bere ustetan, arazoa nabarmendu egiten da euskarazko mintzamen-ariketan euskaldun zahar bat eta euskaldun berri bat elkartzen direnean eta hizketan hasten direnean, askotan ez dutelako elkar ondo ulertzen. Beraz, badaude gurean disfuntzio batzuk, eta horiei buruz hausnartu beharra dagoela dio.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

HABEren zuzendariaren ustez, egoeraren erradiografia bat ere egin beharko litzateke, maila jakin batera iristeko zenbat ordu behar diren jakiteko. Izan ere, HABEk bere curriculumean onartua du maila bakoitzera iristeko behar den ordu-kopurua, baina gauzatutako jarduerari buruzko datu estatistikoak atera dira, eta HABEk berak finkatutako datuetatik oso urrun daudela dio, altuagoak direla alegia, ordu gehiago egiten direlako: A1 maila lortzeko 125 ordu finkatuta badaude, HABEren datu estatistikoaren arabera 243 ordu egiten dira, aurreikusitakoa baino % 80 gehiago, ikastaroa luzea denean maila sendotu ere egiten den arren.

Gipuzkoako udal-euskaltegien ordezkari Joseba Arbelaitz jaunak dio normalean gehiago izaten direla ikasleak ematen dituen orduak, ikasle idealaz ari garelako maila bakoitza lortzeko ordu-kopurua zehazterakoan, alegia, gutxieneko asistentzia bete duena, gutxieneko ikasketa-maila duena, eta abar. Horregatik, bere ustetan, estatistikara jotzen dugunean beti agertzen dira distortsioak.

Ildo beretik, planteatu da C1 mailaz ari garenean, noren C1az ari garen. C1 maila lortzeko euskaldun zahar ona behar duela izan, dio, asko eta asko bidean geratzen direlako, natiboak barne. Azpimarratu du, aldiz, horietako askok C1 mailako titulua ateratzen dutela ingelesez. Argi dago, beraz, eskatzen diren langak ez direla berdinak, bere ustetan: euskaraz C1 maila euskaldun gaituaren maila den bitartean, beste hizkuntzetan, aldiz, bigarren hizkuntzan gaitua denaren maila da.

Lourdes Isart andreak herrietan euskarak berak duen egoera soziolinguistikoa eta hizkuntzaren beraren berezitasunak aipatu ditu kontuan hartu beharreko arrazoiaren artean, euskalki askotatik jaten duen hizkuntza delako euskara, baita hizkuntza gutxitua ere. Beraz, uste du ikerketa-proiektu hori inportantea dela neurgailua zehazteko eta norabidea finkatzeko, fokoa non jarri asmatzen bada.

Joseba Lozano jaunak esan du gauza asko ez direla mahai gainean jartzen, hizkuntzak ebaluatzeke ezberdintasunak agerian utziko dituzten datuak izateko, eta analisiak egitea falta dela.

Gero, batzordekideek desberdintasun hori islatzen duten beste zenbait egoera azaldu ondoren, HABEren zuzendariak HOBE sistemaren berri eman du, erakundeak euskara-maila ordenagailu bidez egiaztatzeke abiatu duen sistema, eta gaineratu du orain arte honako urrats hauek egin direla:

- Proba pilotu bat egin da 80 bat lagunekin.
- KZ guneeetan egin da proba.
- Idazmen- eta irakurmen-probak gauzatzeko aplikatu da.
- Ondo funtzionatu du.

Sistema berriaren abantailen artean, zuzenketa errazten duela azpimarratu du, eta adierazi du mintzamen-proba ere sistema horretatik bideratu nahi dela; horrela, deialdi erraldoiak egin beharrean, azterketa egun, ordu eta leku jakin batean egiteko aukera eskaini ahal izango litzateke, txartel elektronikoa bat erabiliz.

6.2.- HABEren berdintasun-plana

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

HABEko Berdintasun teknikari Idoia Alberdi andreak azaldu du erakundearen Berdintasun Plana. Horretarako, Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunari buruzko Legearen 15. artikuluan jasota dagoen lege-oinarritik abiatuz, eta Eusko Jaurlaritzak 2018. urtean onartu zuen plangintzan jasotako egitura, ardatz, helburu eta programak zehaztu ondoren, emandako pausoak nabarmendu ditu:

- 1- Berdintasun Teknikariaren lanpostua sortu, lehen urrats gisa.
- 2- HABEren diagnosa egin, eta hobekuntza beharrezkoa zela ikusirik,
- 3- HABEren Berdintasun Plana onartu, erronkak, ardatzak eta programak jasoz, Elhuyarren laguntza teknikoarekin.

Azpimarratu du HABEko langileek aukera zabala izan dutela prozesuan parte hartzeko, berdintasun-batzordearen bitartez, eta ondoren azaldu ditu prozesuan azpimarratu diren ezaugarri nagusiak:

- HABE 63 langilez osatua dago; horietatik, % 60 emakumezkoak dira eta % 40 gizonezkoak. Lan-talde egonkorra izan da urteetan, baina orain, erretiroak eta heriotza batzuk tarteko, emakumezkoak dira gehiengo modu nabarmenean.
- Segregazio horizontala eta bertikala aztertu dira.
- Segregazio horizontalari dagokionez, emakumeak dira gehiengo kudeaketa-zerbitzuan, % 70 baino gehiago. Hizkuntzaren Didaktika zerbitzuan, berriz, erakunde barruko gizonezko guztien % 64 bertan dago.
- Segregazio bertikalari begira, datu nabarmena da zerbitzuburu emakumerik ez dela inoiz egon HABEn. Atalburuei erreparatuta, bederatzi atalburuetatik bi bakarrik dira emakumezko.
- Kategorien aldetik, lehenik eta behin, soldata-maila edo soldata-arrakala aztertu da. Gora egin ahala, emakume guztien erdiak 19. mailaren azpitik (gradu pertsonala) metatuko lirateke; aldiz, gizonezkoen % 12 bakarrik egongo litzateke 19. graduaren azpitik metatuta. Dena den, 26. maila da emakumeek duten mailarik altuena, eta aldiz, 28. mailako bi lanpostuak gizonezkoek okupatzen dituzte.
- Agintaritza-organoetan, Zuzendaritza Batzordean badago parekotasuna gizon eta emakumeen artean, baina Batzorde Akademikoan zortzi gizon eta bi emakume daude. Askotariko batzordeak osatzerakoan ez da sexuen arteko oreka kontuan hartu. Epaimahaien eta aztertzaileen kasuan ere ez; esate baterako, C2 mailan, hamarretik sei gizonezkoak dira, eta mailetan gora joan ahala, gizonek pisu gehiago dute.
- Euskaltegi-tako langileen kasuan, 101 euskaltegi daude guztira, euskaltegi pribatuak, udal euskaltegiak eta autoikaskuntzarako zentroak barne hartuta, eta bi mila langile inguru; horietatik, % 68 emakumezkoak dira, eta % 32 gizonezkoak.
- Euskaltegien jardueraren antolamenduari eta finantzaketari dagokionez, HABEren egitekoa den aldetik, hiru arlo ditugu: lehenengoa, euskaltegiek berdintasunaren ikuspegitik bizi duten errealitatea. Bigarrena, dirulaguntzak euskaltegiei ematerakoan jarraitzen diren irizpideak berdintasunaren ikuspuntutik, eta, azkenik, HABEk euskaltegiei eskainitako prestakuntzaren alorrean aplikatu duen berdintasun-ikuspegia. Esan beharra dago dirulaguntzen eta prestakuntzaren alorretan ez duela genero-ikuspegirik aplikatu orain arte.
- Azkenik, sexu-jazarpenari buruzko protokoloen gaia jorratu gabe dago oraindik.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Ondoren zehaztu du diagnosiaren eta plangintzaren alorrean helburua dela genero-ikuspegia lan administratiboan txertatzea, Gobernu Onaren ardatzean eta, horretarako, bost programa eta hamabost neurri jasotzen dituela Berdintasun Planak:

- Lehen programa konpromiso politikoa da. Horretarako, hainbat neurri daude: berdintasun-politikak aplikatzeko aurrekontuak egitea, plangintza zehaztea, horren jarraipena eta ebaluazioa egitea eta berdintasun-organo edo -unitateak sortzea. HABEk berdintasun-unitatea sortu du.
- Bigarrena, prestakuntza da, bai barrura begira eta bai kanpora begira ere. Azkeneko hau politika sektorialari dagokio, HABEk euskaltegiekin duen harremanean oinarrituz; besteak beste, euskaltegi-tako irakasle eta teknikarientzako prestakuntza-plana 2017-2020. Egin dira dagoeneko oinarritzko kontzeptuei buruzko prestakuntza-saio batzuk aurten HABEn, teknikariei eta administrariei zuzenduak (19 eta 17 langilek hartu dute parte saio horietan, hurrenez hurren).
- Hirugarrena, genero-ikuspegia lan-prozeduretan txertatzea: estatistikak, komunikazioa, materialgintza, enplegu publikoa, araudia, dirulaguntzak, prestakuntza, kontratuak, hitzarmenak eta abar lantzerakoan. Enplegu publikoaren alorrean zerbait egiterik badago ere, HABEk ezer gutxi egin dezake bere kabuz. Aldiz, komunikazioaren esparrua garrantzitsua da generoaren ikuspegitik, baina, esate baterako, ikasturte akademikoaren irekierari dagokion ekitaldietan bitan bakarrik eman dute hitzaldia emakumezkoek azken hamabi ikasturteetan. Materialgintza ere oso atal inportantea da HABerentzat; izan ere, gizartean dauden diskriminazio-estereotipoak eta sexu-rolak zabaltzeko oso bide garrantzitsua da. Horregatik, ezinbestekoa da genero-ikuspegia barneratzea erabiltzen diren mintzagaietan, irakurketetan, audioetan eta horrelako baliabideetan. Gainera, kontuan hartzeaz gain, adierazleak ezarri behar dira, lanketa kuantitatibo bat eginez.

Kontratuen, dirulaguntzen eta hitzarmenen arloan ere badago lan sakona egiteko aukera. HABEk duen jardueragatik, bi eremu daude lanketa hori egiteko: batetik, euskaltegiak finantzatzeko deialdien bidez egin daitekeen sustapen-lana, eta hedapen handia duten materialak kontratatzerakoan, bestetik. Alor honetan dagoeneko baloratzen dira berdintasunari buruzko ziurtagiriak HABEk izapidetzen dituen kontratazio-prozeduretan.

Aurrekontuei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak bultzatzen ari den gaietako bat da genero-ikuspegiaren lanketa, eta ibilbide luzea duen arren, aurten gauzatu da sei hilabeteko lanketa-prozesua gai horren inguruan, Ogasun sailetik abiatuta, hain zuzen ere. HABEk prozesu horretan parte hartu du.

- Laugarrena, Eusko Jaurlaritzaren egituraren barruko koordinazioari eta elkarlanari dagokio.
- Bosgarrena, emakume eta gizonen ordezkariak orekatua organo pluripertsonaletan (zuzendaritza-batzordean, lehen aipatutako Batzorde Akademikoan, kasu, edo epaimahaietan).

Azkenik, erantsi du Plangintzak beste hiru ardatz dituela gizarteari begira: emakumeen ahalduntzea, ekonomia eta gizartea eraldatzeko neurriak eta emakumearen indarkeriaren aurkako neurriak, eta HABEk dituen eskumenen arabera, sensibilizazio-lan garrantzitsua egin

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

dezakeela emakumeak ahalduentzeko eta emakumearen indarkeriaren aurkako neurrien alorretan.

Azaldutakoari Miren Dobaran andreak gehitu dio ikasle gehienak ere, HABEren erabiltzaile gisa, emakumezkoak direla; beraz, HABErentzat esanguratsua dela datu hori.

Lourses Isartek gaineratu du HABEren jende gazte berria dagoela, emakumezkoak asko, eta horiek eragiteko ahalmen handia dutela. Erretiroak ere badatozela eta horien bitartez gaztetzen joango dela HABE. Eta azpimarratu du zenbateko lana egin den materialgintzaren arloan berdintasunaren ikuspegi barneratzeko, erabateko aurrerapena gauzatu baita alde horretatik.

Euskaltegien ordezkariak ere adierazi du euskaltegiek bat egiten dutela HABEren genero-ikuspegiarekin, baina beste kontu bat dela gero baliabideak dituzten hori gauzatzeko.

7.- Euskaltegien jarduera zenbakitan.

HABEren zuzendariak hartu du hitza batzordeburuak puntu honen aurkezpena egin ostean: aurreko ikasturtearekiko % 3 hazi dira matrikulazioak, lurralde eta neurri ezberdinetan, baina gehikuntza horrek, aldi berean, baliabide-beharrak ere handitu ditu. Azken hiru urteetan, oro har, gora egin du ikasleen kopuruak, orain dela hiru urte udal euskaltegietan zerbait behera egin zuen arren, baina azken bi ikasturteetan, bai udal euskaltegietan bai pribatuetan gora egin du ikasle-kopuruak, bereziki azken ikasturtean.

Jokin Azkuek Lourdes Isart andreak euskaltegietan matrikulatzen direnen jarraipenari buruzko galderari erantzun ondoren (hamar adierazle aplikatzen dira ikasleen jarraipena gauzatzeko) batzordekideek elkarrekin partekatu dituzte ikasle-kopuru gehiena pilatzen duten maila buruzko iritziak eta arrazoiak, ikuspegi horretatik sortzen diren desberdintasunak komentatuz: hala, azken urteotan Gipuzkoan A1 eta A2 mailako matrikulazioek gora egin duten bitartean, Bizkaian, esate baterako, Barakaldon, B2 eta C1 mailatan matrikulatuta dagoen jende-kopurua A1 eta A2 mailatan dagoena baina handiagoa da. Desberdintasun horren arrazoitzat ematen dute Gipuzkoan handiagoa dela euskararen presentzia kalean, eta euskararen beharra nabarmenagoa dela Bilbo Handian baino, esate baterako. Desberdintasun horren harira, euskararen ikaskuntzarekiko atzerritarren jarrerak mahaigaineratu dituzte, komentatuz Gipuzkoan Bizkaiko zenbait tokitan baino errazago hasten badira ere euskara ikasten (hamar orduko ikastaro trinkoen bidez), Bizkaiko Foru Aldundiak ildo horretako ahaleginak egin dituen arren, orokorrean ez dutela jarraitzen, ikasten nekatu eta utzi egiten dutelako. Batzordekide guztiak ados daude gaiak duen zailtasunarekin.

Besterik ez dagoenez, bertaratutakoak agurtu eta etortzeagatik eskerrak eman ondoren, batzordeburuak bukatutzat eman du bilera.